

Liburuak

KRITIKA

Jaiotze markak.

Nancy Huston.

Alberdania. 382 orrialde. 19,50 euro.



Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

Historiaren zama

Nancy Huston (Kanada, 1953) literatur-teoria zein soziologiaren inguruko hainbat saiakeraren egilea da, eta idazle bezala kontsaktatu duten hamabi eleberrik –frantsesez eta ingelesez idatziak–, osatzen dute bere ibilbide literarioaren lekukotasuna. Horien artean, *Birth marks* (2006) jatorrizko izenburuaz ezagutzen den eleberria dugu, Femina Saria jaso zuena, eta gaur egun euskaraz irakurtzeko aukera duguna, Alberdaniak argitaratu duen Iñigo Errastiren itzulpenari esker.


Jaiotze markak izenburuaz euskaratu den eleberri honetan, azken urteotan literaturari batere arrotza ez zaion memoria historikoari loturiko aztarnak agerikoak dira. Horren froga, liburuaren amaieran eskaintzen den egile beraren oharra eta zenbait informazio iturriren aipamena dugu. Beraz, ene ustez, fikzioa garatzeko gertakari historiko bat eszenatoki gisa aukeratu izanak bilakatzen du eleberri hau xamurra bezain latza.

Idazlearen beste eleberri batzuetan bezalaxe –*The mark of the angel* (2009)– umeak dira istorioaren kontalari, eta horrek gaineratzen dio gerra garaiko mundu baten tratamenduari nolabaiteko xamuratasuna. Izan ere, gertatzen dena ulertu nahian dabiltzala, haurren pentsamenduak eta sentimenduak imitatzen saiatzen den erregistroaz baliatuz, haien begiradatik abiatuz, inguratzen dituen mundua –etxe barrukoa zein kanpukoa– eta orduko gizartearen egoera transmititzen zaigu. Lau narraziotan banatua, horietako bakoitza ume baten ahotsaz kontatutako diskurtsoak osatzen du; Sol, Randall, Sadie eta Kristina familia bereko lau belaunaldi, jaiotzetiko orban batek lotzen dituen. Solekin 2004ko Kalifornian hasi, eta 1944ko Kristinaren haurtzaroko Alemaniara eramaten gaitu beraz, orainetik lehenera, historiak orainean duen pisuaz jabetzeko, atzera jotzearen beharra azpimarratu nahi duen teknika gisa erabilia.

Baina esan bezala, umeen mundua da protagonista, gerraren testuinguruari inozentzia kutsua txertatu nahiko balio bezala baina, sinetsi daiteke haur baten inozentzian, errudenez mintzatzeko gaitasuna bereganatu duenean? Hemen biltzen da eleberriaren izenburuaren funtsa. *Jaiotze markak*, historiaren balio eta botere determinatzailea azpimarratzen du; haurtzaroen bizi izandako iritzi zein testuinguru politikoen inpaktuak gure etorkizuneko jarrera politikoa baldintzatzen du. Hemen, Bigarren Mundu Gerraz dihardu baina, ez al da herrialde honetan ere jaiotze markak delakoaz mintzaterik? Badakizue zertaz ari naizen. ■

Mixel Thikoiperen hirugarren liburua

Maiatz argitaletxeak kaleratu du Mixel Thikoiperen *Jin bezala* ipuin liburua. *Hotz bero* eta *Gorrail azeria* lanen ondotik, hirugarren liburua du amikuztarrak. Aurreko liburuetan bezala, herriko hizkuntza erabili du Thikoipek literatur sorkuntzarako, eta ipuinetan oro har, Amikuzeko bizimodua erakusten asmatu du.



Jin bezala.
Mixel Thikoipe.
Maiatz.
164 orrialde.

Zoriona eta zoritxarra, biak jin bezala kontatu ditu, argi eta itzalekin. Egilea bera izanik ere, Thikoipek zera dio liburu ireki eta berehala: “Liburu hau ez da enea”. Izan ere, herriko oihartzunak dira nagusi lan honetan: alde horretatik, esan liteke *Hotz beroren* jarraitzaile dela *Jin bezala*, lehen liburu hartako hemezortzi kontakizunei segida ematen dietela lan berriko hoge ipuinek. ■

Txomin Agirre nobela sariaren irabazlea

Euskaltzaindiak antolatzen duen Txomin Agirre eleberri saria Mikel Zubeldiak irabazi zuen azken edizioan. Orain argitaratu da lan irabazle hura, *Ekilibristen polka*, Euskaltzaindiaren eta BBK Fundazioaren lankidetzari esker. Bost kontakizun harilkatuta osatu du lana Zubeldiak, Öchreland hiri grisa abiapuntu hartuta. Jon Gallimore protagonistak Margrit Makay aktorearenganako zentzurik gabeko ihesa planteatuko dio irakurleari; bidaia horretan egingo dute Muratorirekin topo, museoko kikeronea bera, iragan ilunekoa; baita Soeur Coraline, moja eta idazlea; eta Berenice kantaria, eta Martin Gallimore tornularia, Radio Tirana irrati komunistari esker bizi dena: horra, atmosfera estrainio eta pertsonaleko nobela. ■



Ekilibristaren polka.
Mikel Zubeldia.
Euskaltzaindia-BBK.
171 orrialde.
10 euro.